



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## SAN JUAN SUA

San Juan Bezpera eguna hurbil daukagula eta, egun honen inguruko prestaketa lanak aurreratuta dauzkagu eta ondoren adierazten den moduan burutuko dira ekintza hauek:

AFARIA egiteko BI aukera daude:

- TXULOBİ ELKARTEAN gaueko 21:00tan.
- SUAREN INGURUAN gaueko 20:00tan. Afaría Uztartzatik hartu daiteke edo etxetik eramán.

SUA:


- 22:00tan: herriari oinez buelta emango diogu, gazte eta heldu, denok elkarrekin. Txikienek ( 6 urtetik beherakoak) zarata eginez, gazteak (7 eta 12 urte bitartekoak) lizar adarrak eramanez, eta helduak bela eta antortxak hartuta.
- Ondoren dantzaldia egingo da. Jantzera: dantzariak bere jantziekin, emakume kantolariak beltzez, eta gainontzekoak niki edo alkandora zuri eta bakeroak edo galtza ilunak. Lepoan koloretako zapia.
- Bukatzeko, sua piztu, salto egin, eta gauaren magia disfrutatu.

Adunatar guztiak gonbidatuta zaudete parte hartzea, animatu, ez zarete damutuko.



Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)



ADUNAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HERRIKO JAIK NAHI BADITUGU...

Herriko jaiak hurbiltzen doaz eta, urtero bezala, jaiak antolatzen gabiltza. Orain arte eginiko bileretara jende gutxi agertu da eta, beraz, hainbat ekintza burutu ahal izateko jende gehiagorekin laguntza behar dugu, hala nola, kantinaren muntaketa eta txandak, kioskoaren muntaketa, enpresetako diru-bilketa, kartelak itsatsi eta beste abar luze bat.

Hau horrela izanik, hurrengo bilerarako deialdia egiten dugu:

Ekainak 18, 20:00etan, Kultur Aretxean

**Denok eman behar dugu zerbait  
gutxi batzuk dena eman behar ez  
dezaten**

**JAI BATZOREA**

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net • www.aduna.net

## SAN JUAN GAUA 2015

**AFARIA . EKAINAK 23**

**21:00tan ( Txulobi Elkartean )  
HERRI AFARIA!!!**

**PREZIOA: 15 € ( gutxi gora behera )  
( umeak :xolomo ogitartekoa+izozkia 3€ )**

**OHARRA :**  
**HUTS EGIN GABE , IZENA EMAN BEHAR DA!!!!!!!.**  
Izena emateko azken eguna :  
**Ekainak 20 larunbata !!!!**, Uztartzan.